

VITORIA  
GASTEIZ  
green capital

BIRZI  
KLATU  
Revolucionamos

# KONPOSTAJERAKO ESKULIBURUA

---



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

**G**ure gizarteak aurre egin behar dion erronketariko bat hondakinen kudeaketa da. Egunero, gure bizitzeko era eta kontsumo ohituren ondorioz, geroz eta hondakin gehiago sortzen dugu, eta beraz, konponbideak bilatzea eta ingurumenarekin jasangarriak diren tratamendu egokiak garatzea geroz eta zailagoa da.

Gure zabor poltsa aztertzen badugu, gutariko bakoitzak, eguneko, batez beste 1,40 kilo zabor sortzen ditugula konturatuko gara; horietarik, pisuaren %45a konposta lortzeko birziklatu daitezkeen hondakin organikoak dira.

Lorategi edo ortua duten etxeek, konpostajearen bidez organikoa etxean bertan kudeatu dezakete. Lorategi edo orturik ez duten etxeek berriz, auzokonpostaren bitartez, sukaldean sortutako organikoa konpostatu dezakete.

Materia organikoarekin konposta egitea, herrietako hondakinen prebentziorako eta ingurumena zaintzeko ekintza oso baliagarria eta garrantzitsua da, materia organikoa jatorrian kudeatu daitekeelako. Horrela, bildu, garraiatu eta instalazioetan kudeatu beharreko hondakinen kopurua murriztu egiten da. Honek aurrezpen ekonomiko garrantzitsua suposatzen duelarik.



hondar organikoak konpostatu  
eta zikloa itxi

## ZER DA KONPOSTA?

Konpostajea naturan gertatzen den prozesua da, hondar organikoak deskonposatzen dira eta elikagaiak lurrera bueltatzen dira, bere zikloa itxiz. Prozesu naturala da, non, materia organikoa eraldaketa biologiko baten bitartez konpost bihurtzen da. Konpost hau nekazaritzarako eta lorezaintzarako ongarri erabilgarria da. Eraldaketa hori mikroorganismoek (onddo, bakteria, etab.) eta lurzoruko faunak (zizare, barraskilo, etab.) eragiten dute, egoera aerobikoan, hau da, oxigenoarekin.

## ZER DA ETXEKO KONPOSTAJEA?

Etxeko konpostajea sukaldeko eta lorategiko soberakin organikoak etxean bertan birziklatu eta ongarri natural moduan erabiltzean datza. Gure loreontzietan, lorategian edo baratzean erabili dezakegu. Horrela, elikagaiak lurrera bueltatu eta materia organikoaren zikloa ixten dugu.

## ZER BEHAR DUT ETXEAN KONPOSTATZEKO?





## ZER EGIN BEHAR DA KONPOSTATZEN HASI AURRETIK?

### **Toki aproposa bilatu**

Konpostagailuak lurrarekin kontaktu zuzenean egon behar du, inoiz ez zolaren gainean. Haizea eta euritik babestutako toki bat izatea aholkatzen da, eguzki gutxikoa.

### **Konpostagailuaren oinarrian geruza drainagarria jarri**

Konpostagailuaren oinarrian material lehorreko (adarrak, enborrak, hosto lehorrak, lastoa, etab.) 10 cm-ko geruza drainagarria jartzea komeni da, drainaketa eta aireztapena hobetzeko.

### **Metalezko sarea jarri**

Konpostagailuaren azpian metalezko sarea jartzea gomendatzen da, saguak edo antzeko animaliak sar ez daitezzen.

# ZER DA AUZOKONPOSTA?

Auzokonposta sukaldeko soberakin organikoak auzoan bertan konpostajearen bitartez kudeatzean datza, horretarako ipinitako guneeetan.

Interesatuta dauden familiak taldeetan antolatzen dira beraien materia organikoa konpostatzeko.

Lortutako ongarria familiek erabili dezakete edota Udalak, dituen lorategi edo lursailetan.



## NOLA EGINGO DUGU?

### **Sukaldean...**

Sukaldean sortutako materia organikoa ontzi marroira botako dugu.

### **Konpostagailuan**

Ontzian ditugun hondakin organikoak konpostagailura botako ditugu. Ondoren, bertako materialarekin nahastuko dugu aireztapena hobetzeko eta egituratzaile geruza batekin estaliko dugu, euliak saihesteko eta hezetasuna kontrolatzeko.



# KONPOSTATU DAITEZKEEN HONDARRAK

## SUKALDEKOAK



Barazki eta fruta hondarrak



Haragi eta arrain hondarrak



Ogi lehorra eta sukaldatutako janari hondarrak



Arrautza eta marisko oskolak, fruitu lehorrak



Kafe eta infusio hondarrak



Sukaldeko papera eta musuzapiak

## LORATEGI EDO BARATZECOAK



Belarra eta bestelako belarkiak



Lore, erramu eta hosto berde edo lehorrak

## BAITA ERE



Egur naturaleko zerrautsa

Baratzeko uzta hondarrak

Inausketa hondar txikiak eta adar txikituak

**Oharra:** kontuz, frutaren pegatinak eta infusioen etiketak ez bota.



# EZ KONPOSTATU!

Koniferak (pinuak)

Egur tratatu eta aglomeratuen zerrautsak

Animalien gorotzak

Zigarro-puntak

Errazte edo garbiketa hondarrak.

Usteldutako begetal, landare edo fruta kopuru handiak

Material ez-organiko eta biodegradagarriak ez direnak.

## MATERIAL LEHORRA ETA MATERIAL HEZEA...

Hondakin organikoak ur edukiaren arabera sailkatu daitezke. Material hezeek elikagaiak ematen dizkiete konpostatze prozesuaren ardura duten organismoei, eta material lehorrak gehiegizko ura xurgatu eta oxigenoaren zirkulazioa hobetzen laguntzen du.

### MATERIAL HEZEA:

fruta eta barazki hondarrak, haragi eta arrain hondarrak, sukaldatutako janari hondarrak, lore eta erramuak, belarra eta baratzeo hondarrak.

### MATERIAL LEHORRAK:

arrautza oskolak, fruitu lehorrak eta mariskoa, hezurak, kortxoak, paperezko musuzapiak, inausketa hondarrak eta hosto lehorrak.



# ZERK BALDINTZATZEN DU KONPOSTATZE PROZESUA?

Materia organikoaren deskonposaketaren arduradun nagusiak mikroorganismoak dira, eta bizitzeko eta konpostatze prozesua garatzeko baldintza ezin hobeak behar dituzte.

Hiru dira prozesua erregulaten duten ingurumen-baldintzak, eta funtzionamenduaren adierazle direnak:

## Oxigenoa (%15-21)

Organismoek oxigenoa behar dute arnastu eta bizi ahal izateko. Garrantzitsua da airea material guztira iristea, baldintza anaerobioak (oxigeno gabeak) saihesteko.

## Temperatura (45-65 °C)

Temperaturaren gorakada mikroorganismoen aktibitateak eragindako energia askatetik dator. Temperaturak konpostatzen ari diren hondakinen higienizazioa ere ahalbidetzen du.

## Hezetasuna (%45-55)

Mikroorganismoak inguru hezeetan bakarrik dira aktiboak. Ura falta bada, prozesua mantsotu egiten da, eta ur gehiegi badago, baldintza anaerobioak gertatzen dira eta materia organikoa usteldu egiten da, usain txarrak sortuz.

# ZER EGIN BEHAR DA KALITATEKO KONPOSTA LORTZEKO?

## Zati txikiak egin

Botatzen ditugun hondarrak, zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta azkarrago konpostatuko dira. Ahal bada, zatiak ez dira hatz erakuslea baino handiagoak izango.

## Maiz nahastu

Nahasteak mikroorganismoek ekintzarako behar duten oxigenoa, materialaren orekatzea eta hezetasuna banatzea eragiten du.

Astean behin nahastu nahasketa homogeneizatzeko, aireatzeko eta tenperaturak berdintzeko.

Hondakin organiko dezente botatzean nahastea ere komeni da, geruzen sorrera, usain txarrak eta intsektuak ekiditeko.

## Material hezea eta material lehorra nahastu beti

Material hezea material lehorrekin (egituratzailea ere deitua) nahastu behar da beti, karbono-nitrogeno erlazioa egokia bermatzeko, eta oxigenazioa eta hezetasuna kontrolatzeko.

Konpostagailua betetzen den heinean, egituratzaile gutxiago bota beharke diogu.

Gehiegizko hezetasuna badu, egituratzailea gehitu eta nahastu behar da. Baliteke udan, nahasketa gehiegi lehortzea eta ureztatu beharra izatea.



Zergatik gertatzen da?

### NAHASKETA HOTZ ETA LEHOR DAGO

Konpostatzeko material gutxi dago

Material lehor gehiegi dago

### NAHASKETA HEZEEGI DAGO

Material lehor gutxi erabili da

Nahasketa euriak busti du edo gehiegi ureztatu da

### NAHASKETAK USAIN TXARRA DU

Oxigeno gabezia dago

Gehiegizko hezetasuna dago

### NAHASKETAK AMONIAKO USAINA DU

Material heze gehiegi dago (nitrogenoa)

Zer egin behar dugu?

Hondakin organiko gehiago bota

Material hezea gehitu edo ureztatu

Material lehorra gehitu eta nahastu

Material lehorra gehitu eta nahastu

Material lehorra gehitu eta nahastu

KONPOSTATZE PROZESUAREN ADIERAZLEAK

## LIZUNA EDO TELA ZURIEN AGERPENA

Onddoen hazkuntza dago,  
aktibitate mikrobiarra dago

Ez dugu kezkatu beharrik,  
seinale ona da

## FRUTA- EULIEN AGERPENA

Material freskoa dago  
gainazalean estali gabe

Gehiegizko hezetasuna  
dago

Material freskoa gainazalean  
gera ez dadin, nahastu eta  
material lehorrez estali

## KONPOST HELDUAREN ADIERAZLEAK

Oso garrantzitsua da heldutako konposta erabiltzea. Heldu gabeko konpostak landareen garapena murriztu dezake.

### Konposta noiz dago helduta:

- Basoko lurraren usaina du.
- Marroi ilun edo beltz kolorekoa da, eta eskuak gutxi zikintzen ditu ez dagoelako oso hezea.
- Ez du materialik agerian. Uniformea izan behar du, deskonposatu gabeko material zatirik gabea, adar zati edo hezurren bat izan ezik.
- Giro-tenperatura dauka.

**Konposta** konpostagailuaren beheko aldetik ateratzen da eta galbahetu egiten da, zatirik lodienak konpostagailura bueltatuz eta beste materialekin nahastuz.

## Konpost kantitatea

### BELARDIA

Landaketa berria:  
2-3 kg konpost/m<sup>2</sup>

Mantenua:  
0'5-1 kg konpost/m<sup>2</sup>

### FRUTA ARBOLAK

Landaketa berria: lurra  
eta konposta proportzio  
berdinetan nahastu

Ongarri bezala:  
2 cm-ko geruza  
zuhaitzaren oinarrian

### BARATZEA

1-3 kg/m<sup>2</sup>  
barazki motaren  
arabera

### PARTERREAK

1-2 kg/m<sup>2</sup> edo lorategiko  
lurra eta konposta proportzio  
berdinetan nahastu

### ZUHAITZAK ETA ZUHAIXKAK

2-3 cm-ko konpost  
geruza zuhaitzaren  
oinarrian

## Oharrak

Konposta galbahe  
batekin bahetu  
behar da

Udaberrian edo  
uda hasieran bota  
behar da

Arinki nahastu  
behar da

Fruta uzta bildutakoan  
bota behar da

Landatu baino  
lehen bota  
behar da

Arinki nahastu  
behar da

Gainazaletik  
nahastu behar da

Udazkenean  
erabili behar da

# KONPOST HELDUAREN ERABILERA

## LOREONTZI ETA LORATEGIETAN

2 cm-ko geruza

Lorategiko lurrarekin  
nahastu behar da

Udaberrian erabili behar  
da

## TRANSPLANTEAK

Konpost zati 1, 3 zati  
lurrekin nahastu

Transplantearen  
momentuan erabili  
behar da

## KONPOSTA

### ...lurra hobetzeko

Konpostak, erregularitasunez erabilia, lurraren egitura hobetzen du. Lur buztintsuak zuzentzeko erabili daiteke, erraz putzuz bete eta trinkotzen direnak, porositatea handitu eta ur-aire balantzea hobetzen duelako.

Lur hareatsuak egituratzen ditu, eta ura eta elikagaiak landareen sustraiak iristen ez diren lurreko geruza sakonetara arrastatu ez daitezen ere laguntzen du. Higadura eta lur emankorren galera ekiditen laguntzen du.

### ...ongarri bezala

Konposta nekazaritzarako ongarri bikaina da, ingurune naturalera elikagaiak bueltatzen ditu. Landareen garapenerako beharrezkoak diren elementuak ditu eta pixkanaka askatzen ditu; horrela, landareentzat elikagai erreserba garrantzitsua bihurtzen da behar handiagoak dituzten garaietarako.

**Konposta** ongarri organiko moduan erabili daiteke loreontzietarako, baratzerako, lorategirako, balkoirako edo terrazarako